


Elgoibar - 1291. zenb.
XXX. urtea - 2023-06-23



TOKIKOM

BARREN



**Ura eta sua,
hemen da uda**



Elgoibar BHI

2023-2024 IKASTURTEA
DBHko eta BATXILERGOko
matrikulazio epea:

ekainaren 19tik
uztailaren 4ra

Bulegoko ordutegia:
11:00etatik 13:00etara

DBH eta BATXILERGOA

Giza eta
gizarte
zientziak

Zientziak

Artea

Gizarte
zientziak

Humanitateak

Osasun
Zientziak

Zientziak eta
teknika

Artistiko
musikala

943 899 316

013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus

baikara



Jarraitu gaitzazu BARRENET
Youtuben duen kanalean!



YouTube

www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos

EXPRESS ESKAINTZAK!

RB38T674CSA/EF
SAMSUNG
COMBI
HOZKAILUA



799 €



- No frost
- 203 cm-ko altuera
- Edukiera: 390 litro
- All-around cooling
- Sapcemax teknologia
- Optimal fresh + kaxa
- Inox premium

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak / Produktuak agortu arte

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

Ez larritu, eta gozatu abentura berriaz



**"Etap batzuei
itxiera ere emango zaie
San Joan bezpera egunean"**

Gogoan ditut umea nintzenean San Joan bezpera arratsaldean Mendaroko aisialdi taldeak antolatzen zituen ekintzak: eskulanak, jolasak, ... eta ondoren, afaria eta izozkia jaten genituen San Joan sua ikusiaz. Plaza jendez beteta egoten zen, eta goxotasun handiz gogoratzen dut egun hau.

Ekainaren 23ko gaua jende askok udari hasiera ofiziala emateko aprobeztatzen du, baina ez hori bakarrik; beste etapa batzuei itxiera ere emango zaie. Sutara eskolako apunte eta liburuak botatzen zituztenek modu sinboliko batean hori egiten zutela esatera ausartuko nintzateke.

Azkenaldian oso gertukoak ditut ekintza sinboliko hori egiteko aukera duten pertsonak: nebak Batxilergoa amaitu du eta hainbat lagunek, berriz, unibertsitateko ikasketak. Alegia, itxiera hamaika bizipeni, laguni... eta orain, zer?

Egia da Batxilergoa bukatutakoan nahiko zehaztuta izaten ditugula jarraitu beharreko pausoak, baina unibertsitatearen ondorena pixka bat aldrebestuagoa dela uste dut. Bide ezberdinak hartzeko aukera dugu: batzuek ikasten jarraitzearen aldeko apustua egingo duzue; beste batzuek, aldiz, lan mundua lehenengo aldiz probatzeko aukera izango duzue. Badakit hartzen duzuen erabakia hartuta ere, arestiko etapan bezalako hamaika bizipen bizi eta jende paregabea ezagutzeko aukera izango duzuela; beraz, ez larritu eta gozatu abentura berriaz.

Niri oraindik urtebete geratzen zait unibertsitateko etapari agur esateko. Beldur askorekin heldu nion honako honi, baina ziur nago hasierako izua, bukaeran, tristura eta melankolia izango dela. Oraindik nire buruari ez diot nire lagunei hainbeste buruhauste ekarri dizkien galdera egin, artean denboraz nabilelako. Helduko da horretarako unea, eta orduan lagunei aipatu dizkiedan hitz berdinak gogoratuko ditut: ez larritu, eta gozatu abentura berriaz.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Debabarreneko VII. raida

Azken urteetako ekitaldiak Deba eta inguruetan ospatu ondoren, berriro Elgoibarrera itzuli da aurtego Debabarrenako Raida. 160 lagun inguruk parte hartu zuten nagusien raidean eta raid familiarrean, eta egia esan, oso gustura geratu gara zazpigarren edizioak eman duenarekin. Lan handia eskatzen du mota honetako proba bat antolatzeak eta jakitun gara ezinezkoa litzatekeela boluntarioen laguntzarik gabe antolatzea. Hori dela eta, Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu Debabarrenako VII.Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udalari, kirol patronatuari, Udaltzaingoari eta brigadako langileei, emandako baimen eta ezinbesteko laguntzagatik.

Sigmako gimnasioari eta eskalada taldeari, proba bereziak antolatzeagatik. Kimetz elkarteari eta bereziki, Iñaki Bengoetxeari, Nahaste Borrasteko zakuak uzteagaitik. Otsourtia baserriko jabeei, beraien frontoi eta inguruetan trantsizioa jartzeko emandako erraztasunengatik.

Sariekin lagundu diguten Astigarraga Gys Sport, Iriondo Kirolak, Mausitxa gaztak, Ainhoa fisioterapia, Txillarre ekodenda eta Alzola Berazeta baserriari. Helmugako arkoa utzi digun Txarriduna hotelari. Ekonomikoki laguntzen diguten Danobat eta Alcorta enpresei. Nola ez, Deuko Izarra eta Gurutze Gorriari ere, eskerrak.

Bazkarirako produktu freskoek hornitu gaituzten Ziarda harategiari eta Marian fruta dendari. Gure eskerrik onena, Joseba Egiguren eta Edurne Insausti sukaldariei, ia 100 pertsonentzako hain janari goxoa prestatzeagatik.

Ezin aipatu gabe utzi, Elgoibarko Victoriano Etxabe parrokoa, bazkaria elizako arkupeetan egiteko emandako baimenarengatik.

Aipamen berezia, Lizagasarreko Asier Lizarralderi, bere sagardo, sagar zuku eta

gainontzeko produktu ekologikoak eta furgoneta, gure esku uzteagatik.

Ezin aipatu gabe utzi, urtero bezala, fin-fin laguntzen diguten lagunei: Aitzol Arriola, Txelu, Anex Retana, Josu Merino, Imanol Larrañaga, Maite Ordax, Evaristo Rodriguez, Irune Mugertza, Ainara Mugertza, Ibai Gurrutxaga eta aipatu gabe geratu diren beste guztiai.

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldea

Garbiketa borrokan. Funtsezkoak bagara, lan-baldintza duinak

Debabarreneko osasun zerbitzuetan garbiketa lanetarako azpikontratatuak greban daude otsaila amaieratik, laugarren hilabetea dute gutxieneko sarrera ekonomikorik gabe eta borrokan jarraitzeko prest jarraitzen dute ekaina osoan. Eskatzen dutena Osakidetzako langileen pareko baldintzak dira, lan beretsua egiten dutelako.

Pandemia garaian oinarrizko zerbitzu izan zirenak, osasun zerbitzua martxan mantentzeko ezinbestekoak direnak, emakumeoi egozten zaizkigun isileko eta prekarizaturiko eginkizunak; ozenki eta irmoki txalotu nahi ditugu. Berdintasunarekiko konpromisoak gauzatu eta emakume hauei merezi dituzten baldintza duinak bermatzea eskatzen dugu.

Eskualdean sinadura bilketa eginaz, Mendaroko Tratu Onen Aldeko taldetik gure ahizpatasuna adierazi nahi diegu Osakidetzari, Euskadiko emakume enplegatzaile handiena den enpresa publiko gisa definitzen denari, komunitate moduan idatzitako konpromisoak betearaztera bultzatzeko azpikontratatazailea.

Lan baldintza duinak izatea gutxieneko eskubidea da; ezin du pribilejio maskulinoa izaten jarraitu.

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea

Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuak etxera!

34 urte baino gehiago iraun du euskal presoiei aplikatu izan zaien urruntze politikak. Gaur egun estatu espainiarreko espetxeetan dauden euskal preso guztiak Hego Euskal Herriko espetxeetan

daude. Horrez gain, graduen progresioa onartu zaie, eta ez daude derrigortuta lehen graduan egotera, lehen egon diren moduan. Baina horrek ez du ekarri haien eskubideen urraketak amaitzea.

Salbuespeneko jarrera eta legeen amaiera eskatzen dugu, hala nola lege hauek: 5/2003 (non auzitegi zentralak dauka azken hitza), 7/2003 (bizi arteko zigorra ahalbidetzen duena) eta 7/2014 (zigor batuketa eragozten duena). Eta etxera itzultzeko bidea zabaltzea ere eskatzen dugu. Preso daudenentzako gizalegezko eskubideak ari gara eskatzen: preso gaixoak etxeratzeko eskubidea izatea, adineko presoen egoera kontuan izatea...

Ildo berean, munduan zehar gelditzen diren bost deportatu eta 17 errefuxiatuen (tartean Josu Lariz elgoibartarra) Euskal Herrira itzultzeko nahia errespetatzeko eskatzen dugu, beste guztiekin egin den bezala.

Horretarako akordio eta aktibazioak


ezinbestekoak direla pentsatzen dugu eta dei egin nahi dizuegu ekainaren 30ean, ostirala, iluntzeko 20:00etan, Kalegoen plazan egingo den elkarretaratzean parte hartzera.

Sare Elgoibar

Eskerrik asko

Eskerrak eman nahi dizkizuegu pasa den larunbatean, ekainaren 17an, Haritzen Eguna gurekin ospatu zenuten dantzari, musikari eta herritar guztioi. Jai itzela izan zen, eta oso pozik gaude izan zuen harrerarekin. Hala ere, bereziki eskerrak eman nahi dizkiogu udal gobernari; goizeko ekitaldira etorri ziren ordezkari politiko guztiei; Udaltzaingoari; Unax, Haizea eta Sare dantzari gazteei; Maialen Astigarraga eta Mikel Olaizolari; Kultur Kafeari; belaunaldi guztietako dantzari eta musikariei; eta herritar guztiei.

Haritz EDT



Charo Rojo Revilla

2023ko ekainaren 18an hil zen, 81 urte zituela. Haren omenez meza izango da zapatuan, ekainaren 24an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zareteneoi, aldez aurretik eskerrak.

Maite zaitugu.

Etxeokak



II. URTEURRENA

Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.

**Zure eredia jarraitzea da
eguneroko helburua.**

**Maite zintugun, maite zaitugu,
beti maiteko zaitugu.**

Etxeokak



Karakate Bizirik plataformaren materialarekin udan argazkiak ateratzeko ekimena jarri dute martxan

Karakate Bizirik plataformak beste ekimen bat jarri du martxan udarako. Karakate Bizirik plataformaren materialarekin (kamiseta, poltsa edota banderatoa) argazkiak ateratzera animatu dituzte herritarrak, dauden tokian daudela edo doazen tokira doazela. Gero, argazki horiek plataformakoei helaraztea eskatu dute, karakatebizirikelgoibar@gmail.com helbidera bidalita edo plataformak Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan dituen perfiletan argazkiak partekatuz, #KarakateBizirik traola erabilita. Ekainaren 24tik irailaren 10era izango da argazkiak bidaltzeko epea. Argazkiak bidaltzen dituztenen artean, Txillarre eko-dendako oterra eder bat zozkatuko dute.



Ekaineko azken zapatuko feria egingo dute bihar

Elgoibarko Udalak eta Debemenek antolatuta, ekaineko azken zapatuko feria egingo dute bihar. 09:00etatik aurrera Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta Artalde

taldeko artisauek ere jarriko dituzte postuak. 11:00etan txosna zabalduko du Karakate Bizirik plataformak, eta eguerdian umeentzako tailerrak egingo dituzte. Eguerditik aurrera ganadu feria izango da.

Intxarbakuntzako aldapa sei bat astez itxita egongo da Mendaron

Azpilgoetako irisgarritasuna hobetzeko obrak direla eta, 634 errepideko biribilguneak auzorako sarrera itxtekoa zuten atzo, sei bat asterako. Beraz, Elgoibar aldetik datozen autoak Azpilgoetako autobus geltokiaren ingurutik, Santuaranetik, sartu beharko dira auzora. Obrak direla eta, Intxarbakuntzako aldapa itxi egingo zutela zabaldu zuen Mendaroko Udalak joan zen astean eta Elgoibar aldetik zetozen autoek Sasiolako bidegurutzean eman beharko zutela buelta Azpilgoeta auzoan sartzeko. Bariku iluntzean, baina, peoretan oharra jarri zuen Udalak, jakinaraziz obra geldiarazi egin zutela azken orduko arazo teknikoentzako irtenbide egokiago bat aurkitu arte. Kanalizazioari lotutakoak dira sortu diren arazoak. Euri urak kanalizatzeko hodiak errepide ertzetik igarotzea aurreikusia zuten, eta hori egin bitartean, errepide



zati bat zabalik mantentzea, baina kanalizazio hori ezin da aurreikusitako lekutik egin. Hala, derrigortuta daude euri-uren kanalizazioa errepide erditik egitera eta ezinbestean itxi beharko dute biribilguneak auzora arteko sarrera.

Amaitu dute Kalamua eta Urazandi kaleak lotzeko obra, eta datozen egunotan zabalduko dute bidea



Otsailean hasi zituzten Kalamua eta Urazandi kaleak lotzeko lanak, eta dagoeneko amaituta daude obrak. Datozen egunetan errepidean marrak margotuko dituzte, eta trafikoaren zirkulazioaren noranzkoa aldatuko dute auzoan, noranzko bakarreko kalea bihurtuz. Bi aldeetan bi metroko zabalerako espaloiak ditu, %6ko gehieneko maldarekin, inguruneke irisgarritasun-baldintzak betetzeko eta errazteko. Udaletik azaldu dute Urazandi auzoko trafikoa arintzeko egin dutela lotune berria, Kalamua kalea Urazandi kalearekin

lotzeak inguruko trafikoan antolaketa-aukera berriak ematen dituelako. Maialen Gurrutxaga alkateak azpimarratu du bide berriak aukera gehiago emango dituela auzoko kaleetako trafikoa antolatzeko eta oinezkoentzako mugikortasuna hobetzeko. Lan horiez gain, euri-uren sarea ere handitu dute, jariatze-urak biltzeko beharrezkoa dena, bai eta bide berria argiztatzeko behar den argiteria-sarea ere.

Obren aurrekontua 213.196,89 euro + BEZ izan da, eta Egurki Eraikuntzak enpresak egin ditu lanak.

Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak mobilizazioak eten ditu irailaren 18ra arte



Astelehenean egin zuten Elgoibarko Pentsiodunen Mugimendukoek opor aurreko azken manifestazioa, eta jakinarazi dute irailaren 18ra arte eten dituztela mobilizazioak. Hala ere, beraien aldarrikapenak indarrean jarraitzen dutela gogorarazi dute: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta alarguntasuna %100ean kobratzea. Bost urte daramatzate borrokan, eta tarte honetan pentsioei KPI-a aplikatzea lortu duten arren, guardia ez dutela jaitsiko nabarmendu dute eta pentsio duinen alde egiten jarraituko dutela agintzen edozein dagoela ere.

Zuzendaritza berria osatzeko batzarra egingo dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokian hilaren 28an

Elgoibarko Jubilatuen Biltokia Elkarteko Zuzendaritza-Batzordeak bost urte bete ditu jardunean eta iritsi zaie erreleboa emateko ordua. 2018ko ekainean hartu zuten kargua, eta orain, estatuetan jasotakoa jarraituz, ezohiko batzarrera deitu dituzte bazkideak, zuzendaritza berria osatzeko. Hilaren 28an izango da batzarra, jubilatuen biltokian, 16:30ean.



Jubilazio aktibo osasungarria eta parte-hartzailea sustatzea izan ditu helburu azkeneko zuzendaritzak, eta horretarako, prebentzio, kultura, aisialdia eta gizarte harremanak sustatzeko jarduerak programatu ditu gaur bazkide direnentzat nahiz ez direnentzat. Eta hori dena gaur erregistratuta dauden 1.200 bazkideek ordaintzen dituzten kuotekin eta Udalak urtero ematen dien dirulaguntzarekin finantzatu dute nagusiki. Antolatu dituztenen artean daude ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak, solasaldiak, irteerak, nazioarteko bidaiak, mendi-ibilaldiak, lehiaketak, dantzaldiak, bingoa, bestelako jokoak, txokolatadak, sanbartolomeetako bazkaria, 80 urtez gorakoak eta urrezko ezteiak bete dituztenak omentzeko ekitaldia, Gabonetako loteraren eta otarren zozketa, eskola-umeekin belaunaldiartekotasuna lantzeko topaketak.

Zuzendaritzakide izatea borondatezkoa da

eta direnek ez dute ordainsaririk jasotzen. Lan boluntarioa da haiena, ezinbestekoa elkarteari eusteko. Horregatik, egungo zuzendaritzatik bazkideei eskatu diete aldi baterako konpromisoa hartzeko prest egonez gero edo ahal izanez gero, aurkezteko beren hautagaitza. "Gaur zugatik, bihar nigatik. Edozeinek egin dezake lan hau, nahikoa delako ahal dena egitea", esan diete. Eta gehitu dute: "Dena taldean egiten da; denok lagunak eta berdinak gara". Eta bigarren dei bat ere egin diete bazkideei: batzarrera joateko, ia derrigorrezkoa delako elkartearen jarraipena ziurtatzeko. "Interesik ez badago, boluntarioen elkarteak desagertu egingo dira, eta elkarte-sare sozialei eusten ez dien herri batean bizi-kalitatea gutxitzen da, eta bizitzan zoriontsu izateko itxaropena ere murrizten da. Gure kasuan, gainera, biztaliaren zatirik ahulenean gaude", ohartarazi dute.

Errefuxiatuen eskubideen alde elkarretaratzea egin dute Mendaron



Hogei lagun inguru elkartu ziren martitzenean Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren harira Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak deitutako elkarretaratzera. 2022an, 2.000 bat lagun Marokoren eta Espainiaren arteko muga zeharkatu nahian ari zirela Poliziak eragindako sarraskia, Greziako kostaldean joan zen martitzenean gertutako giza hondamendi handia, asilo eskaera ukazioak... funtsean, errefuxiatuen giza eskubideen urraketa oro salatu zituzten.

MIRIAM LIZARRALDE

IMHko ikasle ohi aipagarria

✍️ Ainhoa Andonegi / 📸 IMH-Miriam Lizarralde

“Emakumeentzako ere lanpostu asko dago industrian eta lanerako jendea behar da”

IMH Sariak banatu berri ditu IMHk Lanbide Heziketako ikasleei errekonozimendua egiteko, eta ikasle ohi aipagarrienaren saria Miriam Lizarralde Arrillaga (Elgoibar, 1986) elgoibartarrarentzat izan da aurten. Ibilbide profesional "eredugarriagatik" eman diote saria, "langile nekazina, konstantea, arduratsua eta enpresaren egituraren oinarri sendoak landu dituen profesionala izateagatik". Horrez gain, emakumezkoa, ama eta elgoibartarra izatea ere nabarmendu zituzten ikastetxeko arduradunek.

Lanbide Heziketako ikasle ohi aipagarrienaren saria eman berri dizu IMHk. Zer suposatu du sari horrek zuretzat?

Sorpresa handia izan da. Ikusita gainera aurreko urteetan zeintzuei eman dieten sari hori, are eta harrigarriago egiten zitzaidan, baina egia da pozik hartu dudala. Industria munduan emakume gutxi dago, eta nire ibilbideaz gain, emakume izatea ere hartu dute kontuan. IMH Sarien barruan Lanbide Heziketako diplomak banatu dituzte, guztira 143, eta emakumezkoak 12 bakarrik izan dira, eta elgoibartarrik oso gutxi izan dira. Nire kasuan hiru balio horiek hartu dituzte kontuan:

nire ibilbide profesionala, emakumea eta elgoibartarra izatea.

Zer dela eta aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Batxilergoan konturatu nintzen ez nuela nahi metodologia harekin jarraitu aurrerantzean; hau da, ez nuen nahi ikasi eta azterketak egiten jarraitzea. Batxilergo teknologikoa egin nuen Ikastolan, eta marrazketa gustatzen zitzaidan, beraz, diseinu alorretik jarraitu nahi nuen. Ikastolatik IMHra irteera bat antolatu zuten hango eskaintza ezagutzeko, eta han mundu berri bat deskubritu nuen. Goi Mailako bi urteko ziklo bat egitea erabaki nuen. Askotan Batxilergoa amaitutakoan ez dugu jakiten zer ikasi nahi dugun, eta moduloa egiteak aukera asko zabaltzen ditu. Gustatzen bazaizu, bide horretatik jarraitu dezakezu, eta bestela, beste zerbait egiteko aukera daukazu oraindik.

Zer aurkitu zenuen IMHn?

Diseinu alorreko modulua aukeratu nuen eta sekulako lasaitua hartu nuen IMHn. Gelan ikasitakoa tailerrean jartzen genuen praktikan, eta metodologia askoz praktikoagoa zen. Tornuak eta fresatzeko makinak probatzeko aukera ere izan genuen, eta berehala konturatu nintzen hori ez zitzaidala gustatzen. Elgoibarren enpresa asko daude tornu eta fresatzeko makinak egiten dituztenak,



eta nik enpresen izenak ezagutzen nituen aita eta aitona garraiolariak izan direlako, baina enpresen barruan zer egiten zen ez nuen ezagutzen. IMHn ikasi nuen zer ziren tornuak eta fresatzeko makinak. Diseinua ere erreminta makinara bideratutakoa zen, eta han ikasi nuen akotazioak egiten, tolerantziak zer diren, mikrak...

Goi Mailako modulua egin ostean, ikasten jarraitzea erabaki zenuen.

Ziklo barruan hiru hilabeteko lan praktikak egin nituen Elgoibarko Cometel enpresan. Diseinatzaileei laguntzen ibili nintzen, tailerreko lana ere ezagutu nuen eta han ikusi nuen lehenengo aldiz enpresa baten benetako funtzionamendua. Konturatu nintzen zerbait gehiago ikasi nahi nuela eta ez nuela nahi ordura artekoarekin bakarrik gelditu. Ingeniaritza Duala egitea erabaki nuen. Ingeniaritza Dualak praktikak atzerrian egiteko aukera ematen zuen, eta niri beti gustatu izan zait bidaiatzea; beraz, horrek ere erakarri ninduen. Hiru urteko ikasketak egin nituen nik. Gaur egun lau urte dira, baina gure garaian, hiru ziren. Ikasketak egin bitartean bi enpresa ezagutzeko aukera izan nuen: Azpeitiko egur munduko enpresa batean hasi nintzen praktikan, baina krisiaren ondorioz lana gutxitu zitzaion eta eskopeta munduko Eibarko Aya enpresara joan nintzen. Urtebeteko lan praktikak egin nituen han, eta gero kontratua egin zidaten. Bost bat urte egin nituen han, eta tarte horretan master bat ere ikasi nuen.

Ingeniaritza Dualak aldi berean ikasi eta lan egiteko aukera ematen du. Zein abantaila ditu horrek zure ustez?

Nire ustez ikasi eta lan egitea aldi berean metodologia ona da ikasteko. Gelan teoriarik dena, tailerrean modu praktikoan ikustea oso interesgarria da. Hemen inguruko enpresetan praktikak egiteko aukera ematen du, azken batean ikasketa horiek hemen inguruko enpresentzako langileak prestatzeko pentsatuta daudelako. Horrez gain, atzerrira joateko aukera ere badago; ni, esaterako, Txinara joan nintzen hiru hilabeterako. Shanghai eta Pekin artean dagoen hiriburu handi batean egon nintzen. Enpresan ni eta beste alemaniar



"Ikasi eta aldi berean lan egitea metodologia ona da ikasteko. Nik argi neukan ez nuela nahi ikasi eta atzerketak egiten jarraitu"

batzuk ginen europar bakarrak, eta hasieran arraro begiratzen zidaten. Emakumezkoa, txuri-txuria, gaztea... baina gustura egon nintzen. Hiru hilabeteko praktikak izan ziren, eta egia da apur bat motz geratzen dela gauzak sakon ikasteko, baina gurearen guztiz desberdina den kultura ezagutzeko aukera eman zidan. Hemen kalera irtetekoak gara,

eta han askoz gehiago egoten dira etxean, eta hasieran pixkat kostatu zitzaidan, baina gero hasi ginen planak egiten, eta ezkontza batera ere gonbidatu ninduten. Nire ikaskide batzuk ere Shanghai zeuden sasoi hartan, eta astebeteko oporraldia aprobeixatu genuen elkarrekin Pekinera joateko. Esperientzia oso polita izan zen.

Gaur egun IRTS enpresan diharduzu. Nola iritsi zinen bertara?

Aya enpresan lana gutxitu egin zen eta lanik gabe geratu nintzen. Lan bila hasi nintzen, eta IMHko lan poltsari esker Itziarko enpresa honetara iritsi nintzen (gaur egun Iraetan daude). Ayan egin nituen bost urteetan lan desberdinak egiteko aukera izan nuen, eta konturatu nintzen diseinua ez zitzaidala nik uste nuen beste gustatzen; ez ninduen horrenbeste betetzen. Erosketa saila ezagutu nuen, kalitatean ere egin nuen lan apur bat eta konturatu nintzen gestio lan horiek gehiago gustatzen zitzaizkidala. Enpresa berri honetan erosketa sailean hasi nintzen. Enpresa txikia da, eta denetik egitea tokatzen zaigu. Hasieran nire lana izaten zen diseinatzaileak diseinatutako piezak erostea, ondo zeudela egiaztatzea, bere lekura eramatea... prozesu guztia. Orain jende gehiago gaudenez, lanak banatu egin ditugu eta erosketa eta kalitate sailak bereiztuta daude. Orain produkzio arduraduna naiz. Azpikontratazioaz ere arduratzen naiz, eta hornitzaile zein bezeroekin harremana daukat. Bederatzi urte dira enpresa honetan nagoela, eta tarte horretan lan egiteko modua aldatu egin da. Garrantzitsua da lantalde sendoa eta giro ona izatea. Ni oso gustura nago.

Etorkizuneko ikasketak aukeratzekotan dabilzan gazteei gomendatuko zenieke Lanbide Heziketa?

Dударik gabe. Hartu nuen erabakirik onena izan da niretzat; guztiz gomendagarria. Lan munduari begira daude, enpresen beharrak asetzeko diseinatutako ikasketak dira, eta ikasketak amaitu ostean gehienek lana topatzen dute. Jende asko praktikak egiten dituen enpresan bertan geratzen da lanean, baina bestela IMHk berak ere laguntzen du lana topatzen. Niretzat heziketa zikloak etorkizuna erabakitzeko irtenbide oso ona dira. Gainera

"Oso garrantzitsua da umetatik sartzea teknologia alorreko ikasgaiak ikastetxeetan, umeei sektore hori erakusteko"

pila bat aukera daude, norbere gustukoena aukeratzeko modukoak. Erizaintza, Haur Hezkuntza edo industria mundukoak daude; aukera oso zabala da. Unibertsitatean Erizaintza edo Magisteritza ikasteko puntuazio oso altua eskatzen dute, eta modulua egitea aukera ona izan daiteke puntuazioa hobetzeko. Moduloa egin eta gero ere, nahi duenak badauka unibertsitateara joateko aukera ere. Nik ez dut esaten unibertsitatea txarra denik, baina nik niretzat ez nuen nahi, eta ez naiz damutzen hartutako erabakiaz.

Emakumea izanik, zer moduz moldatzen zara oraindik ere gizonezkoena den munduan?

Ondo; ez dut arazorik izan. Ikasketak egin nituenean ere oso emakumezko gutxi ginen, eta hasieratik egon naiz gizonezko inguratuta. Arazoa ikasketetatik dator. Ez dut uste denik enpresek ez dituztela emakumezkoak kontratatatu nahi; uste dut gehiago dela guk ez ditugula tailerrerako ikasketak aukeratzeko. Nire ustez oso garrantzitsua da umetatik teknologia alorreko ikasgaiak sartzea ikastetxeetan, umeei sektore hori erakusteko. Euskal Herrian, eta batez ere gure inguru honetan, industriak pisu handia dauka eta umetatik irakastea oso garrantzitsua iruditzen zait, etorkizunerako aukeratzat ikus dezaten. Gure enpresan 27tik sei gara emakumezkoak, eta horietatik hiru daude bulegoan eta hiru tailerrean. Langile berri bat kontratatatu nahi dugunean jasotzen ditugun curriculum gehienak gizonezkoenak izaten dira. Nabarmendu nahi nuke tailerrean lan mota asko dagoela eta horietako asko emakumezkoek egiteko moduko lanak direla. Nire ustez, lanik gabe edo lan prekarioetan dabilzan emakumezkoentzako irtenbide ona da industria, eta dudarik gabe animatuko nituzke emakumezkoak sektore honetan barneratzera.



Ion Zubiaurre, Atsegine Uzuriaga, Nagore Cid, Aitor Iriondo, Andrea Arriola, Jone Olaizola, Eneritz Azkue, Jorge Hernando, Jose Luis Mulas, Aser Irujo, Maria Pilar Iranzo, Iñigo Loiola, Aitziber Aranberri, Maialen Gurrutxaga, Ariana Nogales, Ricardo Luis Astigarraga eta Iñaki Lazarobaster.

Maialen Gurrutxaga Uranga izendatu dute Elgoibarren alkate, eta Enetz Ezenarro Arriola, Mendaron

Alkateak hautatzeko eguna izan zen zapatua Hego Euskal Herrian, eta Elgoibarren eta Mendaron ere izendatu zituzten hurrengo lau urtetarako alkate izango dituztenak: Maialen Gurrutxaga Uranga (EAJ) Elgoibarren, eta Enetz Ezenarro Arriola (EH Bildu) Mendaron.

Iragarrita zegoen bezala, 11:00etan puntuan hasi zuten Elgoibarren udalbatza berria osatzeko bilkura. Udal txistulari bandakoek lagunduta egin zuten udaletxera arteko bidea korporazio berriko kideek, eta udalbatza osatzeko adineko mahaia osatzea izan zen eguneko lehen lana. Zinegotzi zaharrenak, gazteenak eta idazkariak osatzen dute mahai hori, eta Elgoibarko kasuan Jorge Hernando EH Bilduko zinegotziak, Aitor Iriondo EAJkoak eta udaletxeko idazkari Iñaki Galdosek osatu zuten. Ondoren, beren karguei zin egin zieten korporazioko kide guztiek banan-banan, eta alkatea hautatzeko bozketa egin zuten gero. Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikokoaren arabera, zerrenda bakoitzeko lehen zinegotziak izendatu ohi dira alkate izateko hautagaiak, baina PSE-EEko Ariana Nogalesek uko egin zion bere hautagaitza aurkezteari. Hala, Maialen Gurrutxaga eta Aitziber Aranberriren hautagaitzak bozkatu zituzten, eta espero

bezala, Gurrutxaga izendatu zuten alkate. Zortzi boto eskuratu zituen Gurrutxagak eta zazpi Aranberrik. Zinegotzi bik zuri bozkatu zuten.

Alkate berriak bi legegintzaldiz alkate izan den Ane Beitia alderdikidearen eskutik jaso zuen zumea. Hunkituta zuzendu zitzairen Gurrutxaga udalbatza aretoan bildutakoei. Alkateak eskerrak eman zizkien maiatzaren 28an botoa eman zuten guztiei, eta bereziki EAJri babesa agertu ziotenei. bai eta Udalean ordezkariak duten alderdietako ordezkariak ere. Pozik eta hunkituta nabari zitzaion, bereziki etxeokak eta gertukoak aipatu zituenean. Gurrutxagak esan zuen lanerako gogoz hartu zuela alkate kargua eta herritarrek erdigunean jarrita eta elgoibartarrekiko duen konpromisotik lan egingo duela. Entzuteko eta eztabaidatzeko gertu izango dutela ere esan zien oposiziokoei eta bere bulegoko ateak zabalik izango dituela nabarmendu zuen, proposamenak nahiz kritikak jasotzeko.



Amaia Urrea, Nerea Isasi, Iñaki Arregi, Nuria Guerola, Enez Ezenarro, Borja Rodriguez, Sonia Garcia, Javier Muñoz eta Dorleta Lazarobaster.

12:00etan puntuan hasi zuen Nerea Etxarri idazkariak alkate berria izendatzeko osoko bilkura Mendaron. Iñaki Arregi Uriak, Amaia Urrea Mardarasek eta Nerea Etxarri idazkariak berak osatu zuten adinekoen mahaia, adin handieneko zinegotziak, gazteenak eta idazkariak osatu behar dutela agintzen duelako legeak. Ondoren, korporazioa osatu zuten, zinegotzi bakoitzak karguari zin egin ostean, eta gero etorri zen alkatea hautatzeko bozketak. EAJk uko egin zion Iñaki Arregiren hautagaitza aurkezteari, eta Enez Ezenarro aukeratu zuten bozketan alkate (bost boto alde, eta lau zuri). Bozketaren emaitzak irakurri ondoren, Nerea Isasi EAJko zinegotziak, EAJren zerrendako bigarrenak, hartu zuen hitza, hautagaitza ez aurkeztearen arrazoiak emateko. "Ez dugu hautagaitzarik aurkeztu herriak hauteskundeetan agertu duen nahia errespetatuz, eta hemendik aurrera, oposiziotik elkarlanean jarduteko zin egiten dugu. Hori da gure nahia. Zorionak, Enez", esan zuen Isasik.

Iñaki Arregik, zapatuta arte alkate izan zenak, eman zion aginte-makila alkate berriari, baina aurrez Arregik eskerrak eman zizkien zinegotzietan, udal langile eta teknikari guztietan, bai eta herritarrei ere. Lau urteko alkate esperientziaz esan zuen egindako guztia

herriaren alde egin duela. Eta zehaztu zuen: "Badakit ez nituela gauza guztiak denen gustura egingo, baina ziur egon nire borondate guztia jarri dudala gauzak ahal izan ditudan ondoen egiteko". Makila ematearekin batera zorionak eman zizkion Enez Ezenarri eta zorte ona opa agintaldi berrirako, bai eta lankidetzarako prestutasuna agertu ere.

Txaloka hartu zuten udalbatza aretara batutakoek alkate berria, eta Iñaki Arregiri eskerrak emanez hasi zuen hark bere hitzartzea, bai zapatuan lankidetzarako agertu zuen borondateagatik, bai eta EAJk hautagaitza ez aurkezteko emandako arrazoiengatik ere. Ezenarrok esan zuen ohore handia dela berarentzat Mendaroko alkate izatea eta ardura handiz hartzen duela alkate kargua. Eta bere taldeari babesa agertu dioten guztiei eta oro har herritar guztiei eman zien eskerrak, eta agindu zuen herritar guztien alkate izaten ahaleginduko dela. Era berean, esan zuen hauteskunde kanpaina zehar esandako balioetan oinarrituko duela EH Bilduren taldeak bere eguneroko jarduna, eta hiru balio edo ezaugarri azpimarratu zituen: gardentasuna, elkarlanerako borondatea bai udal talde ezberdinekiko, bai eta herriko norbanako, elkarte eta gainerako eragileekiko, eta parte-hartzea.



IRITSI DA UDA

✍️ Ainhoa Andonegi / 🎤 Asier Orbea

Ekainak 21, udako solstizioa, urteko gaurik motzena eta egunik luzeena, eta udaren hasiera. Maalan ospatu zuten elgoibartarrek udan sartzea, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldearen eskutik. Sallobenten ospatzekoa zuten jaia, baina eguraldiaren ondorioz, Maalara lekualdatu zuten. Su txiki baten bueltan atondu zuten eszenatokia. Herriko zenbait musikarik abesti ezagunen bertsioak kantatu zituzten, eta segidan, Ekigain festarako propio prestatutako abestia estreinatu zuten. Argazki gehiago: barren.eus



AKELARREA MENDARON

San Joan bezperako akelarrea berreskuratuko du gaur In Leike taldeak Mendaron, Udalaren laguntzarekin. 2019an egin zuten azkenekoz akelarrea Mendaron. Amagoia Zabalak, ludotekako eta gaztelekuko orduko arduradunak, antolatu zuen, herriko hainbat eragilerekin lankidetzan, eta orduko haren trazakoa izango da gaurkoa, antolatzaileek aurreratu dutenez. Eguzkia sartu arte egongo dira zain akelarrea hasteko, eta 22:00ak aldera abiatuko dira Akerbeltz eta segizioa Trinitatetik Herriko Enparantzarantz. Plazan izango da ekitaldi nagusia eta 40tik gora lagunek parte hartuko dute ikuskizunean: euskal dantza taldeko haur, gazte eta helduek; dantza modernoko ikasleek, irrintzilari batek, erraldoiak dantzatuko dituztenek...

San Joan sua ere piztuko dute ekitaldi horren baitan, eta su handiaren bueltan su txikiago bat ere ixotuko dute brigadakoek gero, usadioak agindu bezala nahi duenak gainetik salto egin dezan, txar guztiak uxatzeko.



Aurrez, baina, arratsaldean, kalejiran irtengo dira ludotekako haurrak. 17:00etan jarri dute ordua ludotekan Akerbeltzen mozorroa prestatzeko, eta 18:00ak aldera irtengo dira haurrak kalera, mozorrotuta.

ALTZOLAKO SAN JOAN JAIK




Altzolan ere jaiak izango dituzte gaur. 14:30ean hasiko dituzte ospakizunak kanpai jotzearekin. Musika ere jarriko dute harrizko zubi inguruan, eta ilunabarrean San Joa sua piztuko dute Zelaia parkean. Bihar, zapatua, berriz, meza nagusia eta ondorengo prozesioa izango dituzte 11:00etan, eta 13:00etan mokadua egingo dute. 14:30erako, berriz, herri bazkaria dago iragarrita. Menua ere zehaztu dute: entsaladilla errusiarra, txahal gisatua eta postrean sagar tarta edo euskal pastela. Edaria ere sartuta dute menuan. Helduek hogeitau euro ordaindu beharko dituzte eta hurrek hamar, eta izena eman behar da aurrez, 635 753 447 telefono zenbakira deituta. Bazkalostean, jolasak egingo dituzte eta 20:00etan dantzaldia hasiko dute. Eta eguna karaokearekin amaituko dute.

EKAITZAREN OSTEAN, BAREALDIA

✍️ Ainhoa Andonegi
👤 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Alerta horian egon gara azken egunotan ekaitz eta **A**eurite arriskuagatik, eta oraingoan aurreikuspen guztiak bete dira. Domeka arratsaldean izan genuen lehenengo ekaitz bortitza gure inguruan, eta gogotik egin zuen euria arratsalde osoan zehar. Zerua belztu egin zen eta bat-batean hasi zen txingorra. Motza izan zen euri-erauntsia, baina ur putzu handiak sortu ziren, Maala inguruan bereziki. Udaltzaingotik emandako azalpenen arabera, Ermuaranbide kalean behera zetorren ura zikin zetorren, txingorraren eraginez hostoz eta adarrez beteta, eta Txarriduna pareko biribilgunera iristean, estoldek ezin izan zuten ur hura xurgatu. Estoldak zabaldu eta garbitu zituztenean hartu zuen urak bere bidea, baina ordurako kaltea egina zegoen hainbat establezimendutan. Ura erruz sartu zen Malape eta Ilunpe tabernetan, eta baita aldameneko garaje komunitarioan ere. Aita Agirre eraikinean ere sartu zen ura, baina Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, Maalako gunea izan zen kaltetuena domekan.

Ez zen, baina, hor bukatu naturaren mehatxua, eta astea ere abisu horian hasi genuen. Martitzen goizean etorri zen bigarren erauntsia. Goizeko 9:00ak pasatxoan erabat ilundu zen zerua, eta berriz ere hasi zen kazkabarra, Elgoibarren eta Mendaron. Maala inguruko bizilagunen artean kezka nabari zen berriz ere domekakoa errepikatuko zelakoan, baina oraingoan ez zen horrenbesteko izan. Tabernetan ez zen apenas urrik sartu, eta garajeetan ere, domekan baino gutxiago. Era berean, Aita Agirre eraikinean berriz sartu zen ura, eta han ere egin behar izan zituzten xukatze lanak. Mendaroko Garagartza auzoan ere ura pilatu zen putzuak sortuz, eta bizilagunak estoldak garbitzen jardun zuten, urak bere bidea har zezan. Auto batzuk ere mailatu ziren kazkabarraren ondorioz. Datozen egunetarako eguraldi iragarpena aldatu da, badirudi ekaitzaren ostean barealdia datorrela Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus







PATXI ZABALETA

The Brian Valeta Movement taldekoa

✍️ Ainara Argoitia

Gaur zortzirako, ekainaren 30erako, antolatu duten 'Gararock parkean' jaialdian joko dute The Brian Valeta Movement taldekoek, Amorante eta Bikustik taldeekin batera. Gararock taldeak antolatu du jaialdia, Mendaroko Udalaren eta Uztargi tabernaren babesarekin, eta berezia izateko osagai guztiak ditu. Elgoibarko eta Mendaroko musikari lagunak batuko ditu, irailerako antolatua duten Gararock jaialdiko kartela aurkeztuko dute, eta 2020an hil zen Carlos Cebrian 'Cebri' musikaria oroitzeko eguna ere izango da. Izan ere, Cebri bizi zela grabatutako kantuekin ondu duten diskoa aurkeztuko dute The Brian Valeta Movementekoek, lagunez inguratuta. Azpilgoetan izango da jaialdia, Santa Kuzkuako parkean, 19:00etan.

■ ■ *Sallobenteko lokalean sortzen zen magia eramango dugu zuzenekora* ■ ■

Nola eta noiz sortu zenuten The Brian Valeta Movement?

2012-2013. urte bueltan sortu genuen The Brian Valeta Movement, Andrakan desegin ostean. Iban Urizarren inguruan sortutako taldea zen Andrakan, eta han, elkarrekin jotzen genuen Rafa Furnierrek, Cebrik [Carlos Cebrian, 1971-2020], Iban Urizarrek, Jon Gurrutxagak, Andoni Mujikak eta nik. Andrakan desegin zen, eta zorionez Amorante sortu zuen Ibanek, eta

Cebrik eta biok beste bide bat hasi genuen. Oso feeling ona geneukan gure artean eta Andrakan desegin ondoren martitzenero Sallobenteko lokalera joaten hasi ginen inprobisatzera. 90eko hamarkadan Zokoan taldeak erabili zuen lokalean batzen ginen, gerora Sinuösek erabili zuenean. Arratsalde pasa joaten ginen, gure traste guztiak hartuta, eta grabatu ere egiten genituen gure saioak. Hiru orduko grabazioak ere izaten ziren eta etxera eramanez eta aukeraketa egiten zuen gero

Cebrik. Zirrara berezia sortzen zen lokal hartan batzen ginen aldiro. Atea, gainera, beti zabalik izaten genuen eta lagun on asko pasatu izan ziren handik. Hortik Movement gehitzearena The Brian Valeta izenari. Rafa ere etorri zen aldi haietako batean, eta hura bai, gelditu egin zen. The Brian Valeta Movement taldeko hirugarren kidea izan zen Rafa. Entseatzeko baino gehiago, sortzeko batzen ginen gu lokalean, inprobisatzeko.

Zer ezaugarri ditu aurkeztuko duzuen diskoak?

Bederatzi kanturekin osatu dugu diskoa eta Bandcampen dago entzungai. Sesio ezberdinetan grabatutako pusketak dira, aspaldiko grabazioak eta MP3an grabatutakoak, baina original horiek Ina Iriondok tratatu dizkigu diskorako. Mendaroko Cubo Mastering Studio egin du lan hori, eta bederatzi kanturekin osatu dugu diskoa. Orain, asmoa da zenbakitutako 200 binilo kaleratzea. Diskoaren portada, berriz, La Caja de Tiposen egin digute Maria Saez eta Ander Sanchezek, eta azpimarratu nahi nuke hori ere, berezia delako. Izan ere, The Brian Valeta Movementen kontzeptuarekin bat egiten du diseinuak ere. Diskoaren azalean, pegatina itxurako irudi luminisente txiki batzuk daude, eta elementu horiek azal guztietan agertuko dira, baina modu diferentean jarrita denetan. Beraz, disko guztiak bakarrak izango dira, diseinuan bereizgarri hori izango dutelako denek, eta banan-banan zenbakituta etorriko direlako. Guk egiten genuen kontzeptu bera da: guk ere elementu berdinekin, pedalekin, gitarrekin eta gure tresnekin, beti gauza berriak sortzen genituen.

Eta inprobisazioan oinarritutako disko baten zuzeneko aurkezpena nola ulertu behar dugu?

Zuzeneko kontzertuak Sallobenteko lokalean egiten genituen saioen antza izango du. Gu joaten ginen hara, hartzen genuen zerbeza bat, jartzen genituen traste guztiak martxan, eta hasten ginen sortzen; zoragarri hartzen genuen elkar. Lehenengo kolpean sortutako kantuak dira diskoko denak eta zuzenekora ere lokalean sortzen zen magia hori eraman nahi dugu, baina ez ditugu diskoko kantuak joko. Orain, diskoa entzuten dugunean, topatzen ditugu zuzendu nahiko genituzkeenak, baina era berean, badaude gu geu ere harritzen gaituzten zati batzuk, aurrez prestatuta ere ondu ezingo genituzkeenak. Hori zen The Brian Valeta Movementen ezaugarri

bereizgarria eta kontzertura datorrenak hori jasoko du. Zuzenekoan, Rafa Furnier eta ni egongo gara batetik, baina Iban Urizarrek, Jon Gurrutxagak eta Ana Perezek ere parte hartuko dute ziurrenik.

The Brian Valet Movementen buelta da hau?

The Brian Valet Movement amaitu zen. Cebri karranpekin hasi zenean laga genituen entseguak, ELA gaixotasuna diagnostikatu aurretik. Proposatu izan nion tarteka gelditzea, baina ez zen eroso sentitzen jotzen eta utzi genuen. Zuzeneko batzuetan jo zuen gero Munletekin, baina ez zen behar bezain indartsu sentitzen gure proiektuari eusteko eta modu natural batean amaitu genuen. Oso garai politikak izan ziren, ilusio handiz bizi izan genituenak.

Disko honetan nortzuk parte hartu duzue?

Esango dizut lagun talde handi batek parte hartu duela eta askoren artean ondutako proiektua dela hau. Kontua da Sallobenteko ordenagailuan gordeta neukala grabazio haietako bakoitzean zein lagunek parte hartu zuten, baina lokala erre zenean galdu genuen hori, eta nahiago nuke izenik ez ematea, norbait ahazteko arriskurik ez hartzeko. Baina etxeko musikariak dira denak, lagunak, musikari handiak denak. Sekulako luxua daukagu hemen dauzkagun musikariak izanda.

Nolako kontzertua aurreikusten duzu gaur zortzikoa?

Zalantzarik ez daukat kontzertu berezia izango dena; kontzertu berezia, leku magiko batean. Sotoko Hotsak eta Gararock ziren Cebriren jaialdi gustukuenak, bera parte zelako bietan, eta hor batuko gara bateko eta besteko denok. Irailean ere eskutik etorriko dira Sotoko Hotsak eta Gararock, eta hiru eguneko musika eskaintza sortuko dugu [irailaren 21-22an izango da Sotoko Hotsak eta 23an Gararock]. Nik uste dut gaur zortzikoa hunkigarria izango dela eta eguraldiak laguntzen badu behintzat gogoangarria izango dela ■

Oharra:

Hilaren 30eko jaialdian eskuratu ahal izango da The Brian Valeta Movementen diskoa.

Jai handi baten bueltan elkartu dira Haritz dantzari taldean ibilitakoak



Haritzen eguna ospatu zuten zapatuan Elgoibarren Haritz Euskal Dantzari Taldearen bueltan ibilitako lagunek. 12:30ean Aita Agirren elkartu ziren guztiak eta Mikel Olaizolaren bertso gogoangarri bat entzun ostean, 50 urteotako historiaren laburpena egin zuen Maialen Astigarragak, urteetan egin dituzten ekintza, jaialdi, bidaia eta abarretako irudiez lagunduta. Ekitaldia bukatzeko, dantza eskolako hiru dantzari gaztek dantza egin zuten. Ondoren, sokadantza dantzatu zuten Aita Agirretik Kultur Etxera, eta kalejira batekin amaitu zuten han dantza saioa. 50. urteurrenaren harira sortutako edalontziekin

topa egin eta belaunaldi bakoitzean Haritz EDT osatu duten kideen talde-argazkiak atera zituzten gero, helduenetatik gazteenetara.

Handik, Jai Alai tabernara jo zuten gero, hango nagusi den Jesus Mari Arrieta omentzera, urte askoan doan zerbitzatu izan dizkielako edariak dantzari. Eguerdirako herri bazkaria lotua zuten dantza taldearen bueltan ibilitako lagun guztiak elkarrekin bazkaltzeko, eta 140 bat lagun elkartu ziren Maalan, bazkaritan. Arratsaldean, berriz, hiru bat orduz, kalez kale ibili ziren Skapaie elektrotxarangakoekin, eta eguna amaitzeko, 22:30ean, erromeria egin zuten Maalan Bide Batez taldekoekin (👉 Haritz EDT)



39 bat lagun jardun dira 'Tertuliak' programan

Ekainaren 15ean eman zioten amaiera *Tertuliak* programaren aurtengo ikasturteari. Kultur Etxeko sotoan izan zen, *Tertuliak Bertsotan* ekimenaren bueltan. Uxue Alberdi eta Julio Soto bertsolariek jardun zuten bertsotan 50 lagunengatik. Tertuliak programako jendea bertsolaritza erakutsi eta bertsolarien emanarekin gozatzeko antolatu zuten ekimena programaren eragileek: Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak. Bertsotarako gaiak eta ariketak, gainera, *Tertuliak* programako jendeak prestatu zituen, Irati Agirreazaldegik kazetari eta bertsolarien laguntzarekin.



Euskaraz berba egiteko zailtasunak dituztenei zuzenduta dago *Tertuliak*, euskaraz jarduteko aukera eskaintzeko, eta 39 lagun inguruk parte hartu dute aurtengo ikasturtean, sei taldetan banatuta. Irailaren amaieran hasi ziren eta bederatzi hilabetez jardun dute astean behin tertulian; 35 ordu inguru, denera.

Klimaren bilakaerari buruzko puzzlea osatu du Mari Jose Iriartek Mendaron

Cambio climático durante la Prehistoria izenburuko hitzaldia eman zuen Mari Jose Iriarte-Chiapusso EHUREN Ikerbasque fundazioko irakasleak joan zen barikuan Mendaron. Klimaren bilakaeraren gaineko puzzlea osatu eta giza bilakaeraren erradiografia egin zuen, aztamategietan topatutako polen fosilizatuak emandako informazioa baliatuta. Iraganeko landare multzoak, espezie ezberdinen agertze zein desagertze datak... azaldu zituen, eta nabarmendu zuen klima etengabe aldatzen ari den arren, badela orain fenomeno bat oso kontuan hartzekoa: gizakiaren esku-hartzea. Iriartek esan zuen beti izan direla kliman gorabehera handiak.

Gaur egun, erregistro historikoei kaso eginez gero, glaziazio arteko fase batean gaudela azaldu zuen eta glaziazio baterantz joan beharko ginatekeela. "Baina gizakiaren esku-hartzea dago. Ahalegin handiak egiten ari gara inguruneari buruzko kontzientziazioan, baina uste dut denok ere modu eraginkorragoan jokatu beharko genukeela. Gizakia oso menpeko espeziea da, guk bestela uste arren. Nahikoa lan daukagu daukaguna irauarazten, baina garbi izan behar dugu horretan denok egin behar dugula ahalegin handiagoa eta horretarako ezinbestekoa izango dela gauza batzuei uko egitea", zehaztu zuen.

60ko eta 70eko hamarkadetako musika emanaldietako eta musikari lotutako oroitzapenen argazkiak bildu nahi dituzte ikus-entzunezko baterako


Leok'k musika taldeak bere azken lana aurkeztuko du irailaren 17an Aita Agirre kultur gunean, 12:30ean, eta ordurako 60ko eta 70eko hamarkadetan Debabarrenean egin ziren dantzaldien, izan ziren musika taldeen eta abarren inguruko argazkiak bildu nahi dituzte ikus-entzunezko baterako. Garai hartako irudirik izanez gero, leokkmusic@gmail.com helbidera bidaltzeko eskatu dute edota bestela Elgoibarko Kultura Sailaren bulegoan entregatzeko (Aita Agirre, 1), eskaneatu dituzten.



166 lagunek hartu dute parte Debarrena Orientazio Raidean

Debabarrenako Orientazio Raida Elgoibarrera itzuli da aurren, azken bi urteetan Deban jokatu ostean. Zapatuan jokatu zuten, eta 166 lagunek hartu zuten parte guztira. 81 lagun aritu ziren abenturazko nagusien raidean, eta 85ek egin zuten raid familiarra. Proba nagusiko hasierako lana herri barruan egin zuten, korrika. Hiru kilometroko ibilbidea, eta tartean Nahaste Borrasteko zakuaren proba berezia ere egin zuten partaideek. Ondoren, bizikletak hartuta, Saturio errekarra abiatu ziren arroila jaitziera egitera. Behin proba hori eginda, Otsourtia baserrian kokatuta zegoen anoa postura abiatu ziren bizikletaz, Urruzuno bailara eta Urnobitza magaletan zehar. Hara iristean, trekking oinetakoak jantzi eta Atxolin, Irukurutzeta eta Elosumendi inguruetan ibili ziren parte-hartzaileak, korrika. Tartean, mikro-orientazio proba berezia eta Muskiritsuko

dolmen ibilbidearen inguruko ezagutza galdera batzuk ere erantzun behar izan zituzten. Mayi Mujika elgoibartarrak eta Beñat Doyharzabal ibarrarrak osatutako bikotea izan zen azkarrena helmugan. 6 ordu eta 20 minutu azpiko denboran iritsi ziren helmugara, puntu denak eskuratuta, gainera. Guztira, 22km egin zituzten korrika eta 30 mendiko bizikletaz, eta 2.000 metro positibo baino gehiagoko desnibela gainditu zuten. Partaideen artean Elgoibarko bi bikote eta Mendaroko beste bi ere izan ziren, eta horiez gain, Iparraldetik, Madrildik, Guadalajaratik, Huescatik edota Errioxa inguruetatik etorritako bikoteak ere izan ziren. Morkaiko Mendizale taldetik eskerrak eman dizkiete zapatuko probako laguntzaile izan diren entitate eta denda guztiei eta, baita parte-hartzaile guztiei ere. Argazki gehiago: barren.eus



Euskadiko eskubaloi selekzioak Finlandiakoaren aurka jokatuko du domekan Elgoibarren

Gizonezkoen senior mailako eskubaloiko Euskal Selektzioak lagunarteko hiru partida jokatuko ditu asteburuan Finlandiako selekzioaren aurka. Gasteizen jokatuko dute aurrenekoa, gaur, Zumarragan bigarrena, zapatuan, eta Elgoibarko Olaizaga kiroldegian jokatuko dute azkena, domekan, 12:30ean. Gainera Sanloko Alcorta F.G. taldeko jokalaria den Oier Arriola Leyaristi elgoibartarrak Euskadiko selekzioarekin jokatuko du. Partida iragartzeko kartela bere irudiarekin osatu dute.



Maddi Goñi fitxatu du San Adrian eskubaloi taldeak

Bilboko BM San Adrian eskubaloi taldeak Maddi Goñi Lariz fitxatu du. Goñik 20 urte ditu Sanlon jokatu zuen 2021-22 denboraldira arte, eta amaitu den denboraldi honetan Etxebarriko Kukullaga taldean jokatu du, Sanlok lagata. San Adrianek jokalaria elgoibartarraren kalitatea, golak sartzeko duen erraztasuna eta posizio desberdinetan jokatzeke duen gaitasuna goraiatu ditu. "Aukera eta baliabide gehiago emango dizkio gure lehen lerroko jokoari", adierazi dute taldeko arduradunek. Goñi umetatik hasi zen eskubaloian nabarmentzen, eta infantiletatik jubeniletara bitartean behin baino gehiagotan jokatu zuen Euskal selekzioarekin. Senior mailara ere primeran moldatu da, eta



horren adierazle da azken hiru denboraldietan 250 gol sartu dituela Ohorezko Zilarrezko Maila moduko txapelketa lehiakor batean.



Julen Urruzolak garaipen batekin hasi du Munduko Txapelketa

Rodrigo Reñones Espainiako taldeko hautatzailerean behin betiko deialdian sartu da, eta junior mailako Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatzen ari da Julen Urruzola (Elgoibar, 2002). Espainiako selekzioa Alemaniako Magdeburgo hirian jokatzen ari da lehen faseko partidak. Lehen neurketan, martitzenean, 43-28 irabazi zioten Japoni; eta, atzo (hilak 22) Angolaren aurka jokatzekeak ziren. Gaur, Feroe uharteetako taldea izango dute aurkari, 20:15ean.

Juniorren Gipuzkoako Itzuliko lehenengo etapa, bihar, Mendaron



Ekainaren 24an, goizez, jokatuko dute Gipuzkoako Itzuliko lehenengo etapa, eta aurten Mendaron izango da. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoak antolatuko dute lasterketa eta 92 bat kilometroko bidea osatu beharko dute txirrindulari gazteek. Mendaron hasi, Bergararaino igo, Elgoibarrera jaitsi, atzera Bergararaino joan eta kostalderako bidea hartuko dute ondoren. Sasiolatik Kalbarioko gaina igo, Mutrikura jaitsi eta Olatzen barrena berriro ere Kalbarioko gainera pasatu beharko dute, Mendaroraino itzuli aurretik. 10:30ean abiatuko da tropela Mendaroko plazatik, eta lasterketa 12:50ak aldera bukatzea aurreikusten dute. Antolatzaileek ohartarazi dute ohiko lasterketetan baino txirrindulari gehiago espero dituztela eta horrek trafikoan eta aparkalekuen okupazioan ere eragina izango duela. Herriko Enparantza, esaterako, itxita egongo da, eta lasterketako autoek baino ez dute hara sarbidea izango. Era berean, Kilimon etorbidean ere (Covirango aldapan) ezingo da aparkatu, ez eta Toki Alaiko aparkalekuan ere, 08:00etatik lasterketa bukatu bitartean aparkaleku hori lasterketako auto eta furgonetentzako gordeko baita. Antolatzaileek ulerbera izateko eskatu diete herritarrei eta barkamena eskatu aurrez lasterketak sor ditzakeen eragozpenengatik.

Pala txapelketetako finalak, gaur



Lagunak Pilota Eskolak antolatu duen emakumezkoen eta gizonezkoen pala txapelketetako finalak jokatu dituzte gaur, Kalegoen plazako frontoian, 18:00etatik aurrera. Emakumezkoetan, Karmele Martinezek eta Saioa Iraolak Yoli Mateosen eta Eva Ibarrolaren aurka jokatuko dute. Gizonezkoen finalean, Ander Condek eta Sergio Martinezek osatutako bikoteak Igor Albizu eta Iveta Astiazaran izango ditu aurkari.

Ekainaren 30ean jokatuko dute Nahaste Borraste



Kimetz elkartetik jakinarazi dutenez, Nahaste Borraste kirol proba bereziaren 37. ekitaldia ekainaren 30ean, barikuan, jokatuko dute. Kalegoen Plazatik hasiko da, 19:00etan. Betiko formatua izango du probak, bizikletaz, zakua bizkarrean hartuta eta korrika egin beharko dute, aspaldiko urteetako ibilbide berbera. Dagoeneko eman daiteke izena Nahaste Borrasten parte hartzeko: forms.gle/eNpkiWfvLGuQtnuR7. Egunean bertan ere egongo da, baina, izena emateko aukera, 17:00etatik 18:30era, Kalegoen plazan bertan.

LANA

Eskaerak

Udan umeak zaintzen egingo nuke lan, Elgoibarren. Euskalduna naiz.
618 489 947

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa daukat.
612 554 744

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanak egiteko ere.
678 767 942

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulazio soziosanitarioa eta esperientzia handia ditut.
654 994 405

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanetan aritzeko ere. Esperientziaduna.
641 756 213

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa, esperientzia eta kotxea ditut.
697 754 174

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa, esperientzia eta kotxea ditut. Baserrietara joateko prest nago.
604 986 450

Adinekoak zaintzeko prest nago, gaeuz, astelehenetik ostiralera. Beharrezkoa den titulazioa daukat, bai eta esperientzia ere.
643 071 900

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulazioa ditut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. **666 493 717**

Goizetan adinekoak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanak egiteko ere. Titulu soziosanitarioa daukat eta esperientzia handia.
632 679 710

Adinekoak zaintzeko prest nago. Paperak legez ditut, eta titulu soziosanitarioa daukat.
602 398 328

Adinekoak zaintzeko prest nago, eta etxeetan edo lantegietan garbiketa lanak egiteko ere bai.
641 359 007

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak edo lokaletako garbiketa lanak egiteko ere prest nengoke. Esperientzia daukat. Orduka edo etxeko langile moduan jarduteko prest.
632 881 068

Pintore, peoi edo bestelako lanetarako prest nago. Esperientzia daukat.
631 509 262 (Jonathan)



Adinekoak zaintzeko prest nago. Erabateko malgutasuna daukat. Orduka edo asteburuetan ere.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan, gaeuz... Erizain laguntzaile titulua daukat.
631 125 127


Eskaintza

2023/2024 kurtsorako, akademia batean lan egiteko, ingeleseko irakasle baten bila gabiltza. Interesatuak bidali curriculuma: elgoibarkoakademia@gmail.com

Mekanizazio lantegi baterako langile bila gabiltza. Ez da behar ezagutza berezirik, baina ezinbestekoa da pertsona dinamikoa eta efizientea izatea. Denboraldi luzerako lanpostua. Bidali Cva comercial@ajubita.com helbidera edo deitu **943 740 929** zenbakira.


 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Nire komunitatean, instalazio elektriko guztia aldatuko dugu, eraikuntzak berrogei urte baino gehiago dituelako eta oso baldintza txarretan dagoelako. Bertako lokal baten jabea naiz, eta jakin nahi nuke gastu horien ordainketan parte hartu behar dudan.</p> <p>Lokal baten jabea zarenez, instalazio elektrikoaren egokitzeko gastuetan laguntzeko betebeharrak argia eta erabatekoa duzu. Ulertzen dut eraikineko instalazio elektriko orokorrak ari zirela. Elementu komunak da, eta jabe guztiak hartzen dute parte gastuan, partaidetza-kuotaren edo estatutuaren ezarritako irizpideen arabera. Logikoa da, hainbeste denbora igaro ondoren, higiezin guztietan egokitzapenak egin behar izatea, egungo legedira moldatzeko eta une bakoitzean eskatutako baldintza administratiiboak betetzeko, higiezin bakoitzak dituen instalazio komunak kontuan hartuta.</p> <p>ONDORIOA: Eraikinaren instalazioen eta elementu komunaren amortizazioari dagokionez, higiezin batean osorik edo zati batean berritu behar badira, eta, zehazki, instalazio elektrikoari dagokionean, eraikinaren jabe guztiak ordaindu behar dituzte gastuak.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Nora** eta amama, atzo zuen urtebetetze eguna izan zelako. Muxu asko, familiakoen partez.



Zorionak, **Gorka**, bihar 9 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Naroa eta Juneren partez.



Zorionak, **Sara**, zure 8. urtebetetzean! Erik eta amaren partez. Muxu bat!



Aurten egun batzuetako atzerapenarekin, baina ez gara ahaztu. Zorionak, **Markel**, eta zorionak zuri ere, tia Maria Luisa! Hurrengo txokolatada zuen kontu!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Elgoibarko TKSOL enpresan (lehen TECASOL) 10 urteko esperientzia dugu eguzki-energia fotovoltaiakoaren merkatuan, eta eguzki-panelen instalazio fotovoltaiakoen inguruan sortzen diren beharrei erantzuten dihardugu geroztik.

Zein dira TKSOLen bezero?

Gure bezero nagusienak etxebizitza sektoreko eta familia bakarreko etxebizitzetan bizi direnak izan dira orain arte; hau da, baserrietan, etxe adosatuetan edota txaletetan bizi diren familiak. Baina azkenaldian eskaera handitu da etxebizitza bertikaleko egoitzetan, hau da, inguruko herrietako biztanle gehienak bizi garen etxebizitzetan. Komunitate mailan lan egiteko egin diren aurrepausoak ere handiak izan dira, eta horrek gauzak erraztu ditu. Industria-sektorean ere badihardugu lanean, eta hor ere goranzko joera nabaria dela esan dezakegu.

Egoitza bertikaleko sektorea

Elgoibarren lehen proiektu bertikala gauzatu genuenetik, beste hainbat proiektu gauzatzen gabiltza, eta bezeroen esperientzia positiboa tarteko eta Elgoibarren eta Mendaron eman daitekeen konponbide ERAGINKOR, JASANGARRI ETA PARTE-HARTZAILEENA izan daitekeela kontuan hartuta, gure lanaren ardatz-puntua bihurtu nahi dugu etxebizitza bertikala. Horretarako kanpaina berezia jarri dugu martxan eta hemendik eta urte amaierara arte egiten diren instalazioetan, mantentze lanak doan egingo ditugu hurrengo hiru urteetan.

Modu jasangarri eta eraginkorrean bizi nahi baduzu, TKSOLen lagun diezazukegu! Eskatu aurrekontua lasai.



San Antolin kalea 1 - Elgoibar
943 323 710

23 BARIKUA

18:00 San Joan bezperako desfilea Mendaron, ludotekatik abiatuta.

19:00 Elgoibar BHI Institutuko diplomen banaketa. Herriko Antzokian.

19:30 Bizipoza txaranga, Txirristaka tabernaren 40. urteurrenaren harira. Mendarozabal auzoan.

22:00 San Joan bezperako akelarrea, Mendaron.

24 ZAPATUA

10:30 Juniorren Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa. Mendaron.

18:30 Egur Arte Tailerraren erakusketa ikusteko azken eguna. 20:30 arte egongo da zabalik. Kultur Etxean.

25 DOMEKA

10:00 Bisita gidatua: Debegesak antolatuta, Dolmenen ibilbidea, gazteleraz. Karakateko aparkalekutik abiatuko dira. Izena emateko: 657 794 677

26 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua. Merlin Medina abokatuarekin, Lilan. Bakarkako saioak izango dira. Hitzordua hartzeko: 688 640 983 / elgoibarkozaintza@gmail.com

18:00 Hausnarketa taldea: 'Sareko arriskuak: sextortсионismoa'. Emakumeentzako saioa, Lilan. Ele bietan izango da, eta ez da izenik eman behar.

28 EGUAZTENA

16:30 Batzar orokorra, jubilatuen biltokian. Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzeko bilera egingo dute.

AZKEN ZAPATUKO FERIA

Ekainak 24, zapatua

9:00-14:00 Baserriko eta Artalde artisau taldekoen produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Txosna zabalduko du Karakate Bizirik plataformak.

12:00-14:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Eguerditik arratsaldera, ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

Eta, Debabarrenean zer?

Sanjoanak Eibarren.

Betea izan zuten aurreko asteburua ere Eibarren, baina aste honetakoa ere halatsu dator. Gaur hasiko dituzte San Joan jaiak ofizialki. Sanjoanetako zortzikoa joko dute Usartza Txistulari Taldekoek 11:00etan, Untzagan, eta 12:00etan abiatuko dira kuadrilla guztiak Urkizurantz, Ustekabe fanfarrea lagun hartuta. 13:00etan ongietorria egingo diete Lizarrako dultzaineroei eta kalejira egingo dute udaletxeko plazaraino, 13:30ean botako dutelako jaiari hasiera emango dien txupina. Egitarau osoa: eibar.eus eta etakitto.eus webguneetan daukazue ikusgai.

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

EKAINA

23 BARIKUA
24 ZAPATUA
25 DOMEKA
26 ASTELEHENA
27 MARTITZENA
28 EGUAZTENA
29 EGUENA
30 BARIKUA

Egunez

Arriola
■ Fernandez / ■ Garitaonandia
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Ibañez
Garitaonandia

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Antonio Erkiaga Espilla

2023ko ekainaren 17an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.
Zuzentasunaren eredu beti,
eta umorearen laguna.***

Etxekoak



Jesus Maria Canales Zabaleta

2023ko ekainaren 20an hil zen, 77 urte zituela.

***Nahiz eta urrun joan,
gure artean izango zara beti***

Elkarteko bazkideak



Juliana Zubizarreta Albizu

2023ko ekainaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Memorian atzera egiteak badu bertute bat.
Une bat hautatu eta nahi beste dastatu ahal izatea.
Zauden tokixan zaudela, zu beti egongo zera gure memorian.***

Eskerrik asko, amama Juli.

Etxekoak






Aste honetako erretratu zaharra Juan Jose Loiolak, 40 urte bete berri dituen Txirristaka tabernako jabeak, lagatakoa da. Elgoibarren ateratako argazkia da, san bartolomeetan, eta Juan Jose bera eta haren arreba Arrate dira argazkian ageri diren neska-mutilak. Elgoibarren jaiok dira biak, bai eta haien arreba Lorea ere, eta Juan Josek 4-5 urte zituela joan ziren Mendarora bizitzera Manuel Loiola Iriondo (†) eta Florita Oñederra Uria (†) gurasoekin. Mendaron jai zen gero Onintza, etxeko senide gazteena. Manuel Loiola mutrikuarra zen sortzez, baina oso ezaguna izan zen Elgoibarren, Zabala aroztegia sortu zuelako, Jose Zabalarekin batera. Bertsotarako izan zuen afizioagatik ere egin zen ezaguna urte askoz bitoki izan zuen Mendaron. Florita Oñederra, berriz, Altzolan jaioa zen eta haren anaia Pakok Paco erretegia izan zuen Altzolan.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar



+

1. STRETCH LUXE EHUNA
2. VISCOSOJA EHUNA
3. AIRFILL EHUNA
4. POLITEK ETA BIOCELL EHUNA
5. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
6. AIREZTAPEN BALBULAK
7. ERGONOMIKOA



Luzera: 90 | 105 | 135 | 150
Prezioa: 615€ | 685€ | 795€ | 860€

180 cm-ko luzerako koltzoietan
%5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, %10

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



TXIRRISTAKA TABERNA 1983

40

**40 urte bete ditugu, Mendaro herriak beste.
40 urte, zuen ondoan eta zuei esker!**

**Mila esker, senide eta bezero guztioi,
urte guzti hauetan emandako babesagatik.**

**Bidean, baina, galdu ditugu lagunak ere,
taberna honetan etxeko izan ditugun bezeroak,
eta haiek guztiak gogoan ditugula ospatu nahi
dugu **gaur** 40. urteurrena,
Bizi Poza txarangakoak lagun hartuta.**

**19:30ean hasiko dugu ospakizuna
Mendarozabalen.**

GREEN MI O EN GIDA



LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Fax: 943 743 565
 tienda@pagoagasa.com
 www.pagoagasa.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR
 taller@pagoagasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

BIENA S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
 www.biena.eus
 info@biena.eus

PINTURA

BIODOK
 dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
 biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
 santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA

iraalagoitia

aroztegia - altzariak - elxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
 20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
 www.iraalagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz
 ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: **630 957 345**
677 512 462

Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
 ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidamkolo Sokal Ambiental

618 198 760
 ivan@plaganatura.eus
 www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
 carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,10€ hilan
12 aldiz urtean
4.885 ale astero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea. 3. 3. ez
 20870 ELGOIBAR